Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

# ALKATEAREN EBAZPENA
# RESOLUCION DEL ALCALDÍA
(Texto: 2026SUEU0018)

**Gaitzat harturik** 2025-2026 ikasturtean euskara ikasteagatik dirulaguntza espedientea.

**En relación con:** el expediente relativo a la subvención por el aprendizaje del euskera, curso 2025-2026.

**Kontutan hartuz:**

**Resultando los siguientes hechos:**

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, 5. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntza-arloan dituzten oinarrizko eskubideak ezartzen ditu, eta, ondoren, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren kapituluetan, eskubide horiek gizarte-bizitzako eremu guztietara zabaltzen ditu. Legeak, halaber, herri-administrazio guztien betebehartzat ezartzen du, besteak beste, erakunde bakoitzaren eskumenen barruan, herritarrekiko hizkuntza-politika errespetatzea eta euskararen erabilera gizarte-bizitzako esparru guztietan sustatzea.

Que la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera establece en su artículo 5 los derechos fundamentales de que gozan todos los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia lingüística, y, a continuación, en los capítulos segundo, tercero, cuarto y quinto hace extensivos dichos derechos a todos los ámbitos de la vida social. La ley, así mismo, dispone la obligación de todas las administraciones públicas a respetar, dentro de las competencias de cada institución, la política lingüística hacia los ciudadanos y promover el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, entre otras cosas.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 7.2 artikuluan ezartzen duenez, udalei dagokie beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz eta beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatzeko eta dinamizatzeko egiten dituzten jarduerak finantzatzen lagunduz.

Que por su parte, la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, establece en su artículo 7.2 que corresponde a los ayuntamientos la competencia para promover el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial, organizando directamente los servicios y actividades para ello y colaborando en la financiación de las actividades que otras personas o entidades lleven a cabo para la promoción y dinamización del euskera.

Ildo beretik, Euskararen Ordenantzak bere 35. artikuluan adierazten duenez, "*Euskara dakitenek euskaraz moldatzeko aukera izan dezaten, Udalak plan bereziak egingo ditu udalerriko bizitza soziala euskalduntzeko, bai hainbat sektoretako euskalduntze-prozesuak sustatuz, bai haur, gazte eta helduentzako euskarazko kultura- eta aisialdi-ekitaldiak antolatuz."*

Que en la misma línea la Ordenanza de euskera manifiesta en su artículo 35, "*A fin de que quienes sepan euskera puedan desenvolverse en dicha lengua, el Ayuntamiento elaborará planes especiales para euskaldunizar la vida social del municipio, bien sea promoviendo procesos de euskaldunización de distintos sectores, bien organizando actos culturales y de esparcimiento para niños, jóvenes y adultos en euskera*."

Sustapen-jardueraren esparru horretan, Udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartu zuen, gaur egun berrikuspen-prozesuan dagoena. Plan horretan 16 erronka zehazten dira, horien artean euskalduntzearekin eta alfabetatzearekin zerikusia duena:

Que en este marco de actuación de fomento el Ayuntamiento aprobó el Plan de Acción para la promoción de euskera, actualmente en proceso de revisión. Plan en el que se concretan 16 retos, entre los cuales se encuentra el relacionado con la euskaldunización y alfabetización:

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 20DB-C5YJ-8NCB-RMVA

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Laguna Serrano INTERVENTOR GENERAL (VB) (20/05/2026 15:31 CEST)
Mirari Arriola Irizar COORDINADORA DE CONTRATACIÓN (En nombre de Ana Belén Aristizabal Leceta SECRETARIA ACCIDENTAL) (VB) (22/05/2026 13:07 CEST)
(Resol 297 de 26-04-2026 del Delegado de Personas)
Cristina Laborda Albolea ALCALDESA-PRESIDENTA (22/05/2026 14:35 CEST)

**Erronka**: euskaldun berriak sortzea eta euskaldunen artean erabilera-eremuak zabaltzea eta indartzea. Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta bi prozesuen ebaluaziorako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan (EEEB) eta Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) oinarrituta, euskara etengabeko prestakuntzaren esparruan sartzea: erabilera da helburua, eta formazioa zeregin eta funtzio praktikoei lotutako prestakuntza beharko luke. Euskara ikastea erraztea eta horretarako baliabide egokiak aurreikustea.

**Reto:** crear nuevos vascoparlantes y ampliar y reforzar los ámbitos de uso entre los vascoparlantes. En base al Marco Común Europeo de Referencia (MCER) para el aprendizaje, la enseñanza de idiomas y la evaluación de ambos procesos y el Portfolio Europeo de las Lenguas (PEL), incorporar el euskera al ámbito de la formación continua: siendo el objetivo el uso, formación vinculada a tareas y funciones prácticas. Facilitar el aprendizaje del euskera y prever los recursos adecuados para ello.

Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrien esparruan, ezinbestekoa da bere helburuak hobeto betetzeko beharrezko mekanismoa ezartzea eta lehia, objektibotasun eta publizitate printzipioak bermatzea. Printzipio horiei atxikita dago Administrazio Publikoa, besteak beste, sustapen-jardueretan.

Que en el marco de las Bases de Ejecución Presupuestaria es imprescindible establecer el mecanismo necesario para el mejor cumplimiento de sus objetivos y garantizar los principios de concurrencia, objetividad y publicidad. La Administración Pública está adscrita a dichos principios, entre otros, en actividades de promoción.

Ildo horretan, ikastaroak finantzatzeko dirulaguntzen beharrizan berriak aztertu eta euskara-ikaslearentzat kostuak txikiagoak izan daitezen baliabideak aztertu ondoren, Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko zerbitzuak Euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia egitea proposatu du. Dirulaguntza horien berariazko baldintzak dokumentu espezifikoan ezarrita daude.

Que en ese sentido, tras analizar las nuevas necesidades de subvención para la financiación de los cursos y realizar un estudio de los recursos para que los costes sean menores para el estudiante de euskera, desde el Servicio de Promoción y Normalización del Uso del Euskera se plantea la convocatoria de subvenciones por el aprendizaje del euskera, cuyas condiciones específicas se fijan en el Anexo.

**Gogoan hartuz:**

**Considerando los siguientes argumentos:**

Deialdi hau Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, hura garatzeko ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduan eta Irungo Udalak deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorrean jasotako aurreikuspenetara egokitzen da.

Que la presente convocatoria se adecúa a las previsiones contenidas en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, su Reglamento de desarrollo aprobado por R.D. 887/2006, de 21 de junio, así como a la Ordenanza General Reguladora de las Bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Irun.

Deialdi horren helburua da dirulaguntza publikoak ematea 2025-2026 ikasturtean euskara ikasten edo hobetzen aritzen direnei, bai eta helburu bereziak dituzten taldeei ere (euskaltegietako talde bereziak, unibertsitateek udan euskaraz antolatutako ikastaroak eta ikastaro isolatuak edo kirol-ikastaroak, euskaraz), baldin eta baldintza batzuk betetzen badituzte, hala nola, % 85eko asistentzia eta aprobetxamendu ona.

Que su objeto es la concesión de subvenciones públicas a personas físicas que, durante el curso 2025-2026, se encuentran en proceso de aprendizaje o perfeccionamiento del euskera, así como a personas que participan en grupos con fines específicos (grupos especiales de euskaltegis, cursos de euskera que organizan las universidades en verano, y cursos de ocio o deportivos, en euskera), siempre y cuando cumplan una serie de requisitos, tales como tener una asistencia del 85% y buen aprovechamiento.

Dirulaguntza horietarako aurreikusitako zenbatekoa 65.714,00 eurokoa da, eta 1 1020.481.01.335.30 2026 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio.

Espedientean dauden txosten teknikoa, eskariak eta gainontzeko dokumentazioa **ikusirik**

*ERABAKI DUT*

***1.- Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko Zerbitzuak, 2025-2026 ikasturtean euskara ikasteagatik emango dituen dirulaguntzei aurre egiteko, 65.714,00 euroko gastua baimentzea, A-1655/2026 kontabilitate dokumentuari egotzita eta 1 1020.481.01.335.30 2026 aurrekontu aplikazioaren bizkar.***

***2.- 2025-2026 ikasturtean euskara ikasteagatik emango dituen dirulaguntzen deialdi arautzailea, honi erantsita doana, onestea.***

***3.- DEIALDI hau udalaren www.irun.org webgunean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ARGITARATZEA, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 18 eta 20 artikuluetan ezarritako prozedura kontuan hartuz. Halaber, Irungo Euskaltegiei jakinaraztea.***

***4.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auziaren aurretik, hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo zuzenean aurkaratu Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean, bi hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta; hori guztia, egoki iritzitako beste edozein aurkeztetik aparte.***

Irunen, ebazpen honen sinaduraren egunean.

Que el importe previsto para estas subvenciones asciende a 65.714,00 euros, imputable a la aplicación presupuestaria 1 1020.481.01.335.30 2026.

**A la vista:** del informe técnico, solicitudes y demás documentación obrante en el expediente

*HE RESUELTO*

***1º- Autorizar un gasto de 65.714,00 euros, imputable al documento contable A-1655-2026, con cargo a la aplicación presupuestaria 1 1020.481.01.335.30 2026, para hacer frente a las subvenciones que conceda el Servicio de Promoción y Normalización del Uso del Euskera por el aprendizaje del euskera durante el curso 2025-2026.***

***2º- Aprobar la convocatoria adjunta reguladora de la concesión de subvenciones por el aprendizaje del euskera durante el curso 2025-2026.***

***3º- PUBLICAR la presente CONVOCATORIA en la página web municipal www.irun.org, y en la BDNS y en el BOG, de acuerdo con los arts. 18 y 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Asimismo, notificar a los Euskaltegis de Irun.***

***4.- La presente resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante la Sección de lo contencioso-administrativo del Tribunal de Instancia de Donostia -San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.***

Irun, a fecha de firma de la presente resolución.

ALKATEA
LA ALCALDESA

*Ayuntamiento irun Udala*
*www.irun.org*

***EUSKARA IKASTEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA***
***CONVOCATORIA PARA EL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES POR EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA***

**CURSO 2025-2026 IKASTURTEA**

Irungo Udalaren Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko zerbitzuak, Irunen euskararen erabilera normalizatzeko tresna publikoa izanik, bere helburuen eta egitekoen barne hartzen du hiritarren euskalduntzea sustatzea. Horretarako, egokitzat jotzen du zenbait laguntza ekonomikorako deialdia egitea, hizkuntza ikasten eta hobetzen laguntzeko. Horretarako, berariazko baldintzak ezartzen dira.

El Servicio de Promoción y Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Irun como instrumento público para la normalización del uso del euskera en la ciudad, en el marco de sus objetivos y funciones, promueve la euskaldunización de la ciudadanía. Con tal objeto, el Servicio de Promoción y Normalización del Uso del Euskera estima oportuno convocar diversas ayudas económicas para favorecer el aprendizaje y perfeccionamiento del idioma, para lo cual se fijan condiciones específicas.

**I XEDEA**

**1. <u>artikulua- Xedea eta zenbatekoa</u>**

Deialdi honen xedea da 2025-2026 ikasturtean euskara ikasi eta hobetzeko urteko dirulaguntza publikoak arautzea, bai eta unibertsitateek euskaraz ematen dituzten udako ikastaroetarako eta aisialdiko edo euskarazko kiroleko ikastaroetarako ere.

Dirulaguntza hauetarako aurreikusitako zenbatekoa 65.714,00 eurokoa da; 1 1020.481.01.335.30 2026 aurrekontu aplikazioan egotzita dagoen A-1655/2026 dokumentu kontablearen kargu .

Deialdian ezarritako kopuru hau handitu daiteke, gastatu gabeko aurrekontu baliabideen arabera, beste laguntzen gauzatzearen ondorioz gelditu daitezkeenak, horiek ebatzi aurretik.

**2. artikulua.- Dirulaguntza emateko prozedura**

Lehia-konkurrentzia

**3.-artikulua. Organo-eskumenduna**

Dirulaguntza hauek esleitzeko organo eskuduna Alkate-Lehendakaria izango da edo ordezkaritza jasotzen duen Organoa.

**4.- artikulua.- Araudia**

Deialdi hau ondoko xedapenek arautzen dute:

**I OBJETO**

**Artículo 1º.- Objeto y dotación**

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las subvenciones públicas anuales para el aprendizaje y perfeccionamiento del euskera durante el curso 2025-2026, así como para los cursos de verano organizados por las universidades que se impartan en euskera y cursos de Tiempo Libre o deporte en euskera.

La dotación económica prevista para estas subvenciones es 65.714,00 euros, imputables al documento contable A-1655/2026, registrado en la aplicación presupuestaria 1 1020.481.01.335.30 2026.

El importe fijado en esta convocatoria podrá ser incrementado en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otras líneas de subvención, con carácter previo a la resolución de las mismas.

**Artículo 2º Procedimiento de la concesión**

Concurrencia competitiva

**Artículo 3º. Órgano Competente**

El órgano competente para la resolución de estas subvenciones será el Alcalde-Presidente u Órgano en quien delegue.

**Artículo 4º Normativa aplicable.**

La presente convocatoria se rige por las siguientes disposiciones:

Ordenantza Orokorra, Irungo Udalak deialdi bidezko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituena. (GAO 124 zenbakia, 2017-06-29)

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra (03/11/18BOE).
887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (BOE, 06/07/25).

Ordenanza General Reguladora de las Bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Irun (BOG número 124 de 29-06-2017)
Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE 18/11/03).
Real Decreto 887/2006, de 21 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley, General de Subvenciones (BOE 25/07/06).

## II ESKATZAILEAK

**5. artikulua. -Onuradun izaera lortzeko baldintzak**

Dirulaguntza hauen eskatzaileek honako baldintzak betebehar dituzte:

- 16 urte edo gehiago betetzea eskatzen den ikastaroa hasten den urtean.
- Irunen erroldatuta egotea 2025eko irailaren 1a baino lehen.
- Ezin izango da HABE erakundeak xede horretarako emandako dirulaguntza osoaren onuradun izan (% 100)

Azaroaren 17an onarturiko diru laguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonek edo erakundeek ezingo dituzte jaso dirulaguntza hauek.

Udalarekin eta/edo haren erakunde autonomoekin edo entitateekin dituzten zerga-betebeharrak egunean ez dituztenek ere, harik eta zor horiek eskaera behin betiko ebatzi aurretik benetan ordaindu, kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatituta edo betearazpena etenda badago.

## II SOLICITANTES

**Artículo 5º.- Requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria.**

Podrán optar a las subvenciones, las personas que cumplan los siguientes requisitos:

- cumplir 16 años o más en el año de inicio del curso solicitado.
- estar empadronada en Irun antes del 1 de septiembre de 2025.
- No ser susceptible de resultar beneficiario de ayudas otorgadas para este objeto por la entidad HABE en su totalidad (100 %).

No podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas en quienes concurran algunas de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Tampoco quienes no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento y/o sus organismos autónomos o entidades, hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas de forma previa a la resolución definitiva de la petición, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

**6. artikulua.- Lagundu daitezkeen ikastaroak eta gastuak**

Matrikula gastuak diruz lagunduko dira soilik honako ekimenak sortutakoak badira:

A) HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek 2025-2026 ikasturtean emandako euskalduntzeko ikastaro homologatuak, baldin eta ikastaroak hauetakoren batean egindakoak badira:

1. Irungo euskaltegiren batean
2. beste edozein ikastegitan, baldin eta baldin eta honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

**Artículo 6º.- Cursos y gastos que podrán ser subvencionados**

Se subvencionarán únicamente los gastos de matrícula generados por las siguientes actividades:

A) los cursos homologados de euskaldunización impartidos por euskaltegis o centros homologados por HABE y realizados durante el curso 2025-2026 en alguno de los siguientes centros:

1. En uno de los euskaltegis Irun
2. En cualquier otro centro siempre que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) ikastaroa Irungo euskaltegiek eskaintzen ez badute,
b) ikaslea Irungo euskaltegiek onartu ez badute,
**c)** edo ikasleak ziurtatzen badu, ordutegi, ikasketak edo lana direla kausa, ezin duela Irungo Euskaltegietako eskaintza baliatu.

a) supongan una oferta académica distinta a la de los euskaltegis de Irun,
b) que el alumno o alumna no haya sido admitido en alguno de estos,
**c)** que demuestre la imposibilidad, por problemas de horario, de estudios o trabajo, de acceder a la oferta académica de los euskaltegis de Irun.

B) Euskaltegietako talde bereziak,
C) Unibertsitateek udan euskaraz antolatzen dituzten ikastaroak
D) Aisi edo kirol ikastaroak euskaraz.

B) los cursos de grupos especiales de los euskaltegis
C) los cursos de verano de las universidades que se impartan en euskera
D) cursos de tiempo libre o de deporte, en euskera.

**7. artikulua. - Dirulaguntza jasotzeko baldintzak**

a) Eskabidea behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagokion epeen barruan aurkeztea.
b) Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagokion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.
c) 2015eko urriaren 1ean indarrean sartu zen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak jasotzen dituen azpimailetako bat gainditzea gutxienez, 165 ordutik beherako ikastaroetan izan ezik.

Honakoak kontuan hartuko dira:

- A0-B1 bitarteko azpimailak behin bakarrik lagunduko dira diruz.
- B2-C2 bitarteko azpimailak gehienez bi aldiz lagunduko dira.

Nolanahi ere, xede berezietako taldeetako ikastaroak behin bakarrik diruz lagunduko dira.

✓ Betiere, ikaslearen azken bost ikasturteetako ikas-prozesua kontuan hartuko da.

✓ Kasu guztietan ikasketa prozesua jarraitua denean, aurreko ikasturtean diruz lagundutako azpi-maila baino baxuagorik ez da lagunduko.

d) Euskarazko ikastaroan %85 edo gehiagoko asistentzia erreala izatea ikasturtean, izan ere, nahiz eta faltak justifikatuak izan, asistentzia-falta gisa hartuko dira.

e) Ikastaroa bukatzea eta egin beharreko ebaluazio probak egitea.

**Artículo 7º. - Requisitos para obtener la subvención**

a) Presentar la solicitud dentro del plazo correspondientes.

b) Haber abonado el importe de la matrícula para cuando finalice el curso. El euskaltegi correspondiente confirmará dicho abono en el informe de valoración del final del curso
c) Superar como mínimo un subnivel de los recogidos en el Curriculum Básico de Euskaldunización de Adultos que está en vigor desde el 1 de octubre de 2015, exceptuando los cursos de menos de 165 horas.

Además, se tendrá en cuenta lo siguiente:

- Los subniveles A0-B1 se subvencionarán solo una vez.
- Entre los niveles B2-C2 los subniveles podrán ser subvencionados como máximo, dos veces.

Los cursos de carácter especial solo se subvencionarán cada curso una vez.

✓ En todos los casos se tendrán en cuenta el proceso de aprendizaje de los últimos cinco años del alumno/a.

✓ En todos los casos, cuando el proceso de aprendizaje sea continuo, no se subvencionarán los niveles inferiores al subnivel subvencionado durante el curso anterior.

d) La persona solicitante deberá tener una asistencia real igual o superior al 85%, ya que aun siendo las faltas justificadas se considerarán como falta de asistencia.

e) Finalizar el curso y hacer las pruebas de nivel correspondientes.

**III. ESKARIAK**

**III. SOLICITUDES**

**8. artikulua.- Eskariak aurkezteko epea**

Deialdiaren laburpena GAOn argitaratzen den hurrengo egunetik 2026ko urriaren 1 artekoa izango da, azken hau barne.

**Artículo 8º.- Plazo de presentación de solicitudes**

Desde el día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el BOG hasta el 1 de octubre de 2026, inclusive.

**9. artikulua.- Eskaerak aurkezteko modua**

Eskaera, beharreko datu eta dokumentazio osagarriarekin, www.irun.org/egoitza Irungo Udalaren Egoitza Elektronikoan aurkeztuko da, "*Udal dirulaguntzak: euskara ikasteagatik dirulaguntzak*" normalizatutako izapidea erabiliz edo Administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzko indarrean dagoen legedian zehaztutako beste edozein bidetatik, Irungo Udalaren DIR3 identifikazio-kodea adieraziz: L01200454.

Eskatzaileak edo haren ordezkari batek aurkeztu beharko du eskaria. Kasu horretan, ordezkaritza hori honela egiaztatuko da:

- ✓ Aldez aurretik Irungo Udaleko Ordezkarien Erregistroan inskribatuta egotea, edo
- ✓ Eskabidearekin batera, ordezkari-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuz.

Eskaera elektronikoki aurkezteko, eskaera sinatu beharko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 11. Artikuluan aurreikusitako sinadura elektronikorako sistemaren bat erabiliz (DNIe, IZENPE edo FNMT-ren ziurtagiri elektronikoak, IrunTxartela…).

**Artículo 9º.- Forma de presentación de solicitudes**

La solicitud se presentará en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Irun www.irun.org/sede, utilizando el trámite normalizado "*Subvenciones municipales: Subvenciones por el aprendizaje del euskera*" o por cualquiera de los medios establecidos en la legislación vigente sobre Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, indicando el código de identificación DIR3 del Ayuntamiento de Irun: L01200454.

La presentación de la solicitud deberá ser realizada por la persona solicitante o por un representante de la misma. En ese caso, dicha representación se acreditará mediante:

- ✓ la previa inscripción en el Registro de Representantes del Ayuntamiento de Irun, o
- ✓ adjuntando a la solicitud la documentación que acredite la condición de representante.

Para la presentación de forma electrónica, la solicitud deberá firmarse utilizando alguno de los sistemas de firma electrónica contemplados en el art. 11 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (DNIe, Certificados electrónicos de IZENPE ó FNMT, IrunTxartela…).

**10. artikulua. - Eskarian aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskabideetan honako hauek adierazi beharko dira, gutxienez:

- Dirulaguntzaren onuradun izatea eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta nortasun-agiriaren zenbakia.
- Euskaltegia edo ikastaroa ematen duen entitatea, eta dirulaguntza eskatzen duen ikastaroaren matrikularen prezioa.
- Posta elektronikoko kontua (e-maila), deialdi honekin lotutako oharrak jasotzeko, argitaratuko diren dokumentuak eskuratzeko edo hala dagokionean, jakinarazpenak eskuragarri jartzeko.
- Zenbakia edo IBANa eta banku-kontuaren titularra, dirulaguntzen onuraduna izatekotan, dirulaguntza transferentzia

**Artículo 10º.- Documentación a presentar en la solicitud**

En las solicitudes deberá indicarse, al menos:

- Nombre, apellidos y nº de Documento de Identidad de la persona que solicita ser beneficiaria de la subvención.
- Euskaltegi o entidad impartidora, y precio de la matrícula del curso por el que se solicita la subvención.
- Cuenta de correo electrónico (e-mail) en el que recibir avisos relacionados con esta convocatoria, de publicación de documentos, o en su caso, de puesta a disposición de notificaciones.
- Número o IBAN, y titular, de la cuenta bancaria en la que, en caso de resultar beneficiaria, recibir la subvención en forma

bidez jasotzeko.
- Dirulaguntza honen onuradun izateko baldintzak betetzen dituela adierazten duen adierazpena, deialdi honen arabera eta deialdi honi araudi aplikagarriaren arabera.

Baldintzak egiaztatzeko, Irungo Udalak honako kontsulta hauek egingo ditu:

- Irunen erroldatuta egotea (Biztanleen Udal Errolda).
- Matrikulazioa eta emaitza akademikoa (euskaltegia edo dagokion zentroa).
- Zerga-betebeharrak (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekikoak (GSDO) egunean izatea.

Eskatzailea datu-kontsulta horien aurka badago, edo kontsulta horien ondorioz ez bada daturen bat lortzen aurreikusitako egiaztapenak egin ahal izateko, dagokion egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**IV IZAPIDEA**

**11. artikulua.- Izapidea eta balorazio**

Instrukzioa egiteko eta ebazpena proposatzeko prozedura Irungo Udalak deialdi bidezko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoa izango da.

**12. artikulua.- Organo instrukziogilea**

Dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzea organoa Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko zerbitzuko normalizazio arduradunaren eginkizuna da eta eta hau, ez badago, aipatutako udal zerbitzuko teknikariei.

**13. artikulua.- Balorazio batzorde**

Balorazio Batzorde bat eratuko da, honako kide hauekin:

- Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko Zerbitzuburua
- Normalizazio Arduraduna
- Normalizazio teknikari bat

transferencia.
- Declaración de que cumple con los requisitos para poder obtener la condición de beneficiario de esta subvención, conforme a esta convocatoria y la normativa aplicable de la misma.

Para la comprobación de los requisitos, el Ayuntamiento de Irun consultará:

- Empadronamiento en Irun (Padrón Municipal de Habitantes).
- Matriculación y resultado académico (Euskaltegi o centro correspondiente).
- Estar al corriente de obligaciones tributarias (Hacienda) y con la Seguridad Social (TGSS).

En caso de que la persona solicitante se oponga a dichas consultas de datos, o si como resultado de las mismas no se obtiene algún dato para poder realizar las comprobaciones previstas, se requerirá la presentación de la documentación acreditativa correspondiente, siguiendo lo previsto en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**IV INSTRUCCIÓN**

**Artículo 11º.- Instrucción y valoración**

El procedimiento para la instrucción y propuesta de resolución será el previsto en la Ordenanza General reguladora de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Irun.

**Artículo 12º.- Órgano de instrucción**

La ordenación e instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones corresponderá a la/el Responsable de Normalización del Servicio de Promoción y Normalización del Uso del Euskera y, en caso de ausencia, a las/los técnicas/os del citado servicio municipal.

**Artículo 13º.- Comisión de valoración**

Se constituirá una Comisión de Valoración formada por:

- El Jefe del Servicio de Promoción y Normalización del Uso del Euskera
- La/El Responsable de Normalización
- Un/a técnico/a de normalización

**14. artikulua.- Jarduerak jakinaraztea eta akatsak zuzentzea. Entzuteko tramitea**

Behin-behineko ebazpen-proposamena iragarki-taulan eta web orrialdean (www.irun.org) argitaratuko da eta 10 eguneko epea izango da alegazioak aurkezteko.

Halakorik egonez gero, aurkeztutako alegazio eta egokitzapenak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo du organo instrukziogileak.

**Artículo 14º.- Notificación de actuaciones y subsanación de defectos. Trámite de audiencia**

La propuesta de resolución provisional será publicada en el Tablón de Anuncios y página web (www.irun.org) y se concederá un plazo de 10 días para presentar alegaciones.

Si los interesados/interesadas presentaran alegaciones o adecuaciones, el órgano instructor una vez examinadas aquellas, presentará una propuesta de resolución definitiva.

**15. Artikulua. Dirulaguntza emateko Ebazpena**

Alkatetzak edo hark eskuordetzen duen organoak behin betiko ebazpena emango du, instrukzio-organoak egindako proposamena ikusita.

Deialdia iragarki-taulan eta web-orrian (www.irun.org) argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea itxi eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

Eskaria aurkezteak ez du berez ematen dirulaguntza jasotzeko eskubidea, eta dirulaguntza orok berezko duen diskrezio-izaerari eutsiko dio.

Ebazpena ezarritako epeetan jakinarazten ez bada, kasuan kasuko eskariak ukatutzat jo ahal izango dira, administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritako isiltasun-ondorioetarako.

Dirulaguntza ematea edo ukatzea ebazten duen ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena argitaratu zuen organo berari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, emakiden kasuan, onartutzat joko dira.
Hori guztia, Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean ebazpenak zuzenean aurkaratzeko aukerari kalterik egin gabe, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

Dirulaguntza eskabidean adierazitako kontuan ordaintzen denetik hilabete igaro eta onuradunak ez badu dirulaguntzari uko egiten diola adierazi, ondorio guztietarako jakinarazitzat joko da.

**Articulo 15.- Resolución de Concesión.**

La Alcaldía, u Órgano en quien delegue, resolverá de manera definitiva a la vista de la propuesta realizada por el órgano instructor.

La convocatoria se resolverá y se publicará en el Tablón de Anuncios y página web (www.irun.org) en un plazo máximo de seis meses desde el cierre del plazo de solicitudes

La presentación de la solicitud no otorga por sí misma el derecho a percibir la subvención, conservando esta concesión el carácter discrecional, inherente a toda subvención.

La falta de resolución en los plazos establecidos podrá considerarse como denegación de las correspondientes solicitudes a los efectos de silencio fijados en la normativa sobre procedimiento administrativo.

La Resolución por la que se resuelva la concesión o denegación de subvención pondrá fin a la vía administrativa, pudiendo ser objeto de recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes contado desde la publicación ante el mismo órgano que la dictó. Transcurrido el mismo, en el supuesto de concesiones, se entenderán aceptadas.
Ello sin perjuicio de la posibilidad de impugnación directa de las resoluciones ante la Sección de lo contencioso-administrativo del Tribunal de Instancia de Donostia -San Sebastián, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación.

Transcurrido un mes desde la realización del pago de la subvención en la cuenta señalada en la solicitud, y no habiendo manifestado la persona beneficiaria su renuncia a la misma, se entenderá notificada a todos los efectos.

**16. artikulua.- Ebazpena baliogabetzea edo**

**Artículo 16º.- Nulidad o anulabilidad de la**

**aldatzea**

Ebazpenak baliogabetzeko arrazoiak izango dira administrazio prozedurako legeek aurreikusi dituztenak. Arrazoi horietakoren bat izanez gero, dirulaguntza eman duen organoak ofizioz berrikusiko du kasua, edo, hala badagokio, kaltegarritzat joko da eta aurka egingo da administrazio prozedurako legeek diotenaren arabera. Ebazpenak ez dira ofizioz berrikusiko dirulaguntza itzultzeko arrazoiak daudenean.

Era berean, 39/2015 Legearen 109 artikuluak diona aplikatuko da egintza ezeztatzeko eta akatsak zuzentzeko.

Dirulaguntza ematean kontuan izandako baldintza orokorrak laguntzaren helburua betetakotzat jo arren nahiz deialdian aldatu ahal izateko aukera berariaz xedatuta duten baldintza bereziak aldatzea, eta, nolanahi ere den, edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako dirulaguntzaren edo bestelako laguntzaren bat lortzea nahikoa zioa izan daitezke dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzeko.

Ondorio horietarako, ebazteko eskumena duen organoak aldatze ebazpena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokitzeko; legeak agindu bezala, kontraesaneko espedientea izapidetu ondoren.

**17. artikulua.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna.**

Honako deialdi honetan xedaturiko dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bererako edozein administrazio edo erakunde publikok nahiz pribatu nazionalek, europarrek edo nazioartekoek ematen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortzearekin, hurrengo atalean xedatutakoari kalterik egin gabe.

Deialdi honen bidez udalak emandako dirulaguntza, berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera, eta errekurtsoekin batera, ezin izango du inola ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua gainditu.

Dirulaguntza hauetatik kanpo geratzen dira HABE

**resolución**

Serán causas de nulidad o anulabilidad de las resoluciones las previstas en la legislación de procedimiento administrativo. Cuando concurra alguna de aquellas causas, el órgano que hubiera concedido la subvención procederá a su revisión de oficio, o en su caso a la declaración de lesividad y ulterior impugnación de conformidad con lo dispuesto en la normativa sobre procedimiento administrativo. No procederá la revisión de oficio de las resoluciones cuando concurran causas de reintegro.

Asimismo, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 109 de la Ley 39/2015 para la revocación de actos y la rectificación de errores.

Toda modificación de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, o de aquellas condiciones específicas cuya modificación se haya previsto de forma expresa en la convocatoria y, en todo caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones.

A dichos efectos el órgano competente para resolver dictará la oportuna resolución de modificación en la que se reajustarán los importes de la subvención concedida, previa tramitación del oportuno expediente contradictorio.

**Artículo 17º.- Concurrencia con otras ayudas.**

Las ayudas en forma de subvención previstas en la presente convocatoria serán compatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.

El importe de las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento en virtud de esta convocatoria en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad subvencionada a desarrollar por la persona beneficiaria.

Quedan excluidas de estas ayudas aquellas personas

erakundeak matrikula osoa (%100a) subentzionatzeko baldintzak betetzen dituztenak. HABEren dirulaguntzak matrikula osoa jasotzen ez duenean soilik, udalak laguntza hauen bidez osatu ahal izango du alde hori.

que cumplan los requisitos para ser subvencionadas por la entidad HABE en su totalidad (100 %). Únicamente, en el caso de que la subvención de HABE no sufrague la totalidad de la matrícula, el ayuntamiento podrá complementar esta diferencia mediante estas ayudas.

**18. artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.**

Dirulaguntzaren zenbatekoa matrikula gastuen %100era iritsi daiteke.

Kasu bakoitzean eman beharreko dirulaguntzen bolumenak, guztira, adierazitako kontsignazioa edo hori eguneratzearen ondorioz ateratzen dena ez du gaindituko, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontuan aldaketak onartzen badira.

Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz dirulaguntzen hasierako zuzkidura handitu behar bada, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea, eraginkorra izan dadin.

Deialdi honetan adierazitako irizpideen arabera dirulaguntzen onuradun izan daitezkeen eskabideen zenbatekoak deialdiaren zuzkidura gainditzen badu, onuradun izaera aitortuko da eskabideak aurkeztu diren hurrenkera jarraituz, eskuragarri dagoen kreditua agortzen den arte.

Kontsignatutako kreditua behin agortuz gero ez da beste dirulaguntzarik emateko ebazpenik egingo. Hala ere, deialdi honetan araututakoaren arabera atendituak izateko baldintza guztiak betetzen dituzten eta baliabide ekonomikorik ez dagoelako soilik ebatzi ez diren eskabideak, hurrengo ekitaldian ebatzi ahal izango dira, beti ere aurrekontu-kontsignazioa eta deialdia badago, beste eskabiderik aurkeztu beharrik gabe.

Deialdi honen aurreko ekitaldian dirulaguntzen onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituzten eta baliabide ekonomikorik ez izateagatik soilik atenditu ez ziren eskabideak deialdi honetako zuzkiduraren kargura ebatzi ahal izango dira eta ezohiko ebazpen bat eman ahal izango da horiek ordaintzeko, baita oraingo ebazpenean eskabideak aurkezteko aurreikusitako epea amaitu baino lehen ere.

**Artículo 18º.- Cuantía de la subvención.**

La subvención podrá alcanzar el 100 % de los gastos de matrícula.

El volumen total de subvenciones a conceder en cada caso no excederá de la consignación señalada o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

La ampliación de la dotación inicial de las ayudas como consecuencia de la ampliación del crédito presupuestario, no requerirá de nueva publicación de la convocatoria para su eficacia.

Cuando el importe de las solicitudes recibidas que, de conformidad con los criterios señalados en la presente convocatoria, resulten susceptibles de resultar beneficiarias de subvención supere la dotación de la convocatoria, se procederá a reconocer la condición de beneficiario/a siguiendo el orden de presentación de las solicitudes hasta agotar el crédito disponible.
No procederá la resolución de concesión de nuevas subvenciones una vez agotado el crédito consignado. No obstante, las solicitudes que reúnan todos los requisitos para ser atendidas conforme a la regulación de esta convocatoria y que no se resuelvan únicamente por falta de recursos económicos podrán ser resueltas en el ejercicio siguiente en caso de que haya consignación presupuestaria y convocatoria al efecto, sin necesidad de presentar nueva solicitud.

Las solicitudes que, reuniendo todos los requisitos para resultar beneficiarias de subvención en la convocatoria realizada el ejercicio inmediato anterior al de la presente, no pudieron ser atendidas únicamente por falta de recursos económicos podrán ser resueltas con cargo a la dotación de la presente convocatoria, pudiéndose dictar una resolución extraordinaria para su abono antes incluso de que concluya el plazo para la presentación de solicitudes previsto en la actual.

**19. artikulua.- Dirulaguntzaren ordainketa**

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, onuradunek deialdi honen laugarren atalean aipatzen

**Artículo 19º.- Pago de la subvención**

La subvención se hará efectiva en un sólo pago una vez los beneficiarios/as hayan presentado la solicitud

diren agiriak aurkeztu ondoren eta HABEren (Helduen Euskalduntzerako eta Alfabetatzerako Erakundea) euskara-mailak edo horien baliokideak ikasturtean gainditu dituzten ikasleei ematen zaizkien 2026ko dirulaguntzak esleitu ondoren.

**V DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA**

**20. artikulua.- Itzultzea**

1. Jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, eta berandutze-interesa eskatuko da dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan aurreikusitako egoeretako bat gertatzen denean, bai eta deialdi honetan aurreikusitako kasuetan ere.

2. Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta beraz, premiamendu bidez eskatu ahal izango dira dirua ez bada erabakitako epearen barruan itzuli.

3. Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol funtzioetan emandako dirulaguntzaren helburua, erabilera edo lorpen ez egokiaren zantzurik ondorioztatuko balitz, espedientean adieraziko dira zantzu horiek, eta beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

**VI ARGITARA EMATEA**

**21. artikulua. Publizitatea**

Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 18. eta 20. artikuluek xedatzen dutena betetzeko, Udalak Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalari ondoko informazioa helaraziko dio:

- deialdia eta berariazko baldintzak
- inputatzen diren programa eta aurrekontu kreditua, eta
- dirulaguntzaren helburua edo xedea

Era berean, deialdia ebatzi ondoren, Udalak Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalari igorriko dio ondoko informazioa:

- onuradunen zerrenda,

y una vez que HABE (Instituto de Euskaldunización y Alfabetización de Adultos) haya adjudicado las ayudas de 2026 a los alumnos y alumnas que han superado las pruebas de nivel.

**V REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES**

**Artículo 20º.- Reintegro**

1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en la Ley 38/2003 General de Subvención y su Reglamento de desarrollo, así como en los supuestos contemplados en esta convocatoria.

2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, por lo que podrán ser exigidas por la vía de apremio si el reintegro no se efectúa en los plazos que se determinen.

3. Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, inspección o control se deduzcan indicios de incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención percibida, se dejará constancia en el expediente de tales indicios, y se podrán acordar las medidas cautelares precisas.

**VI PUBLICIDAD**

**Articulo 21.- Publicidad**

En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 18 y 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Ayuntamiento remitirá a la Base de Datos Nacional de Subvenciones información relativa a:

- la convocatoria y sus condiciones especificas
- el programa y crédito presupuestario al que se imputan, y
- el objeto o finalidad de la subvención

Igualmente, y una vez resuelta la convocatoria, el Ayuntamiento remitirá a la Base de Datos Nacional de Subvenciones información relativa a:

- la relación de beneficiarios/as,

- emandako eta onuradunak benetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, eta
- hala badagokio, itzultzeko eta/edo ezarritako zigorren ebazpenak.

- el importe de las subvenciones otorgadas y efectivamente percibidas, y
- en su caso, las resoluciones de reintegro y/o de sanciones impuestas.

**VIII DATU PERTSONALEN BABESA**

**22. artikulua.- Datu pertsonalen babesa**

Izaera pertsonaleko datuak udal-eskumenak erabiliz bilduko dira, eta beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginez osatuko dira, dirulaguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Irungo Udalaren Informazio Sisteman sartuko dira, eta hirugarrenei lagako zaizkie datu pertsonalak babesteko legerian aurreikusitako kasuetan bakarrik.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte HAZen edo www.irun.org/egoitza egoitza elektronikoaren bidez. Halaber, Irungo Udaleko Datuak Babesteko ordezkariarekin kontaktatu dezakete dpd@irun.org helbide elektronikoan eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan www.avpd.euskadi.eus erreklamazio bat aurkezteko eskubidea dute.

**VIII PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES**

**Artículo 22º.- Protección de datos personales**

Los datos de carácter personal se recogerán en ejercicio de competencias municipales y serán completados mediante consultas a otras Administraciones Públicas a fin de verificar el cumplimiento de requisitos de acceso a subvenciones. Serán incluidos en el Sistema de Información del Ayuntamiento de Irun y serán cedidos a terceros únicamente en los supuestos previstos en la legislación en materia de protección de datos personales.

Las personas titulares de los datos podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición a través del SAC o la Sede Electrónica www.irun.org/sede. Podrán contactar con el Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Irun en el email dpd@irun.org y también tienen derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad Vasca de Protección de Datos www.avpd.euskadi.eus.

**VIII DEIALDIAREN INTERPRETAZIOA**

**23. artikulua.- Euskara Ordezkaria fakultatzea.**

Organo-eskuduna den Alkateak, Euskara Ordezkaria fakultatzen du deialdi honetatik kanpora suerta litezkeen zalantza egoera guztien aurrean erabakitzeko, baita une jakin batean beharreko erabakiak hartzeko ere, dirulaguntzen esleipenerako prozesua behar bezalakoa izan dadin.

**VIII INTERPRETACIÓN DE LA CONVOCATORIA**

**Artículo 23º.- Facultar al Delegado de Euskera.**

La Alcaldesa-Presidente, como órgano competente, faculta al Delegado de Euskera para aclarar cualquier duda que pueda surgir respecto de la interpretación de esta convocatoria, así como para tomar las decisiones pertinentes, llegado el caso, para garantizar el proceso de adjudicación.